



## EUSKAL HERRIKO FEDERALISTAK ETA POR UNA ESPAÑA FEDERAL ELKARTEEN ADIERAZPENA

Koronabirusak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialak arintzeko 750.000 milioi euroko funtsaren eta 2021-2027 aldirako EBren aurrekonturako 1.074 bilioiko aurrekontuaren ondoren, Euskal Herriko Federalistak eta Por una España Federal Elkarteek uste dute Europar Batasunak erantzun politiko nahikoa azkarra eta beharren arabera erantzun ekonomikoa eman duela.

Akordio horrek, halaber, izaera federaleko urrats berriak dakartza; izan ere, gobernantza-prozedura kooperatiboagoa indartzen du Europako erakundearen eta estatu kideen artean, eta Batasunaren berezko baliabide fiskalak areagotzen ditu tresna berriekin. Transferentzietarako prozedurek hainbat iragazki pasatu behar badituzte ere, ezein gobernuak ezingo du horien erabilera oztopatu, eta funtsak banatzeko irizpideak objektiboak eta gardenak izango dira. Gainera, Funtsak eta Aurrekontua erabiltzeko helburu politikoak komunak izango dira: eraldaketa digitala, trantsizio berdea, gizarte kohesioa, enplegua sortzea, osasuna eta hezkuntza hobetzea eta abar.

Horregatik guztiatik, akordio honek urrats handia suposatzen du norabide egoki batean: lurralde eta gizarte integrazio handiagoa eta Europako herritarren ongizatea.